

TIBET´EKO LEKAIDEAK (MONJEAK)

SINISTEDUNAK

Munduan geienak gara (% 85 baiño geiago) jainkoaren sinistea daukagunak, era batera edo bestera, eta erlejiño guztiak ez dira besterik illunpean dabillen munduak Jainkoaganantza emoten dauzan urratsak baiño.

Baiña sinistedunen artean lenenengo lekuan monjeak edo lekaideak ikusi bear doguz, eurak diralako Jainkoa geien billatzen dabenak.

Zelako jainkoa?

Baiña sinistedunen artean askotarikoak dagoz: Jainko-irudiak gurtzen dabezenak, izadiko landara, ibai izar eta olakoak jainkotzak daukezenak, dana dala jainkoa uste dabenak...

Gu Jainko bakarria sinisten dogunen artean gagoz, bakarra ta gogo edo espiritu utsa dana gaiñera.

Gu liburudun erlejiñodunak gara, islandarrakaz eta israeldarrakaz batera. Beste batzuk be ba-daukez erlejiño-liburuak, esterako “vedak” deritxenak: Ramayana ta Mahabarata.

OTOITZA

Erlejiñoak berez daroa otoitz egitera eta monjeak onetan eredu doguz, kristiñauak izan naiz budatarak izan: Otoiotz asko egiten dabe, batzutan bakarka eta beste batzutan alkartuta.

Tibet´eko lekaide edo monjeak, gaiñera, otoitz mekanikoa dauke: Otoitzak idatzi eta eskuetan biraka erabilli ezkerro benetako otoitza dala uste dabe. Mantrak esaten dautse olako otoitzai eta asko erabilten dabez.

GEROKO BIZITZA

Gugaz batera dauke Tibet´ek monjeak eta beste budatarak geroko bizitzearen itxaropena, baiña euren ustez mundu onetan bizi bear gara guztiz garbi geure buruak ikusi arte, eta orretarako bizitza bat amaitzen danean, beste bizitza batera aldatzen gara, zikiñagoa edo garbiagoa, bakoitza zelakoa izan dan. Ori da “metempsikosis” edo arimak aldatzea edo bir gizarteratzea edo “reencarnación”

Bakoitza guztiz garbitu eta bizitzak amaitzen dauzanean, Jainkoagaz bat egiten da beste munduan, “nirbana” deritxon egoeran. Au be panteismoa da.

EMENGO BIZITZEA

Munduan ondo alkartuta bizi bear dogu, alkarrari laguntzen, bakean. Eurak inguruko baserrietara joaten dira baserritarrai laguntzen eta onein emoitzak artzen dabez. Geienbat ortik bizi dira.

Erriak asko maite dauz monjeak eta alderantziz lekaideak be maite dabe euren erria.

POLITIKEA

Eurak independentzia nai dabe eta, batez ba aspaldion ori eskatzen dabiltz. Monjeak ez dautsee izten laikoai orretara sartzen, espetxeratuak izan ez daitezana. Gaur 1 200 dagoz espetxeetan eta egoera oso txarrean.

Birmaniatarak, goragoko maillan Txina´tarak, dira euren zapaltzailleak, eurai askatasunik emon ez nai dautseenak.

Oraintxe dagoz burruka-aldi onetan gogor jokutzen: 30 000 lekaide eta 40 000 laiko dabiltz kaleetan zear askatasuna eskatzen.

Euren jokabidea bakezkoa da eta demokrazia eskatzen dabe Tibet´erako.

ERLEJIÑO

Lekaide edo monje oneik ez dagoz bakarrik euren erlejiñoan, Buda´ren jarraitzailleak dira, bai siniskeretan eta bai egikeretan

JANTZIA

Gorritz edo kololore gorizkea dauken jantziagaz ibiltzen dira, baiña eskumako besoa agirian, jantzi barik darabillega.

GUK ZER EGIN?

Gizon goragarri oneik aintzat eta ontzat artu eta leku guztietan goratu egin bear doguz.

Gutzak eredu on bat dira, naizta gu gauza guztietan eurakaz batera etorri ez.

OLAZAR´tar Martín´ek

EUSKAL ASTEA

2007-11-19: **Legarreta´tar Asier´ek:** *Guda-aurreko bertsogintza*

2007-11-20: **Olazar´tar Martín´ek:** *Euskal abizenak*

2007-11-21: **Atutxa´tar Paul´ek:** *Euskalerriaren askatasuna (1)*

2007-11-22: **Uriarte´tar Ana:** *Umandi´ren iztegia*

2007-11-23: **Atutxa´tar Paul´ek:** *Euskalerriaren askatasuna (2)*

Euskerazaleak